Gogoeta arruntak XX. mende bukaerako Euskal Literaturaz

Patri Urkizu

▶ **To cite this version:**

Patri Urkizu. Gogoeta arruntak XX. mende bukaerako Euskal Literaturaz. Revista internacional de los estudios vascos / Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, 1997, 42-1, pp.135-146. artxibo-00497411

HAL Id: artxibo-00497411

https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00497411

Submitted on 5 Jul 2010

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Gogoeta arruntak XX. mende bukaerako Euskal Literaturaz

(Common worries of the Basque literacy at the end of the XX century)

Urkizu Sarasua, Patri
Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48
20007 - Donostia

BIBLID [0212-7016 (1997), 42: 1; 135-146]

Urkizu irakasleak 1990-1994ko literatur emaitza kuantitatibo (J.M. Torrealdaik zuzendu Jakin errebistaren datuen arabera) aztertu eta ohiko ondorioak ikertzen ditu, jeneroen artean narratibaren garaipena nabarmentzen delarik (%tik 70). Bestalde, 68az geroztako aire berrien zabalkundea eta idazle itzulienen zerrenda aurkentzen du, eta azkenik Joseba Sarrionaindiaren Ni ez naiz hemengoa *saioa zehazki arakatzen eta kritikatzen du.*

Giltz Hiltzak: Lireratur Kritika.

El autor expone las dificultades para analizar críticamente los diversos géneros de una literatura cada año más abundante. Ochocientas obras aproximadamente en el quinquenio de 1990-94 con una predominancia clara del género narrativo (70%), lo que la equipara a las tendencias generales de otras literaturas. Y aunque considera que la vasca ya en los años 50 a través de Jon Mirande y Gabriel Aresti se había iniciado en unos rumbos plenamente modernos, piensa que será en los años 80 cuando los autores vascos empezarán a ser conocidos fuera del ámbito vasco a través de sus traducciones, siendo los más representativos Bernardo Atxaga y María Asun Landa, quedando aún una serie de autores también de primera calidad desconocidos a causa de una política poco efectiva de traducción. En la segunda parte del artículo Patri Urkizu se ciñe al análisis crítico del ensayo Ni ez naiz hemengoa 'No soy de aquí', *obra fundamental de Joseba Sarrionaindia.*

Palabras Clave: Crítica literaria.

L'auteur expose les difficultés que présente l'analyse critique des divers genres d'une littérature qui devient de plus en plus importante. Huit cent oeuvres environ pour la période 1990-94 avec prédominance du genre narratif (70%), ce qui correspond aux tendances générales d'autres littératures. Et même s'il estime que déjà dans les années 50, à travers Mirande et Aresti, la littérature basque assumait la modernité, ce sera dans les annés 80 que les auteurs basques commenceront à être connus en dehors du domaine basque. Les auteurs les plus représentatifs de cette dernière période étant Bernardo Atxaga et Maria Asun Landa il reste une série d'auteurs de grande valeur qui demeurent inconnus à cause d'une politique de traductions peu effective. Dans la deuxième partie de l'article, Patri Urkizu entreprend l'analyse critique de l'essai Ni ez naiz hemengoa 'Je ne suis pas d'ici', *oeuvre essentielle de Joseba Sarrionaindiia.*

Mots Clés: Critique litéraire.

ZAILA bada laburbiltzea azken garaiotako euskal idazleen emaitz ugaria orri gutxi batzutan, are zailagoa oraindik aurkezpen hutsaz gain oparotasun horren lerro nagusiak marraztu nahi izatea, eta egutera-hozpelak, argiak eta ilunak irizpide zehatzen arabera adieraztea. Halere, ahaleginduko natzaizue argi pittinto bat egiten ertz aniztuneko multzo zabal eta desberdinegi dirudien horretan, eta eraikuntza horren zutabe nagusiei soalditto bat botatzen, jakinik ere aldez aurretik nere zuzia ez dela iritsiko zoko guztietara. Barka nazate, bada, ezikusiek eta ahantziek, eta ea hurrengo batean beraietaz mintzatzeko aukera hartzen dugun.

Hasteko, eman diezaiogun, adibidez, zifren munduari begiradatxoa, jakin, badakigun arren aspaldidanik, kultura eta honen adar edo azpimultzo den literatura neurgaitza, muga eztabaidatsuak dituela, eta zifrak oro erlatiboak izan daitezkeela, erreferentzi punduaren arabera ikuspegia txit ezberdin eta aldakorra gerta dakigukeelako, noski.

Liburu Kopurua : 1990-1994 (Iturria: *Jakin* , J. Torrealdai). * Batezbesteko %

URTEA	LIBURU KOPURUA	LITERATURA					
		Orotara	Narrazioa%	Olerkia%	Teatroa%	Herri-Lit.%	Saioa%
1990	828	156	52,5	17	3,8	2,5	15
1991	966	144	61,5	14	9	10,5	5
1992	980	134	69,5	16	3,5	15	-
1993	1193	185	72	10	7,5	7	4,5
1994	1109	190	69,5	7,8	6,8	6,8	4,2
Orotara:	4076	809 (*20)	* 65	* 13	* 6	* 8,4	* 7,6

Obra multzo erlatiboki handi hortatik zein eta nola hautatu? Zein iritziren arabera sailka dezakegu hainbeste obra? Nola berezi, zenbaiten hitzak erabiliz, “merezi” dutenak, “homologableak” eta “esportableak” direnak eta baztertu besteak? Merkatuaren arrakasta lortu dutenak soilki, eta honek ezarten dituen legeen morrontzapean ipini beharko ote dugu gure iritzia? Irizpide anitza ala bakarra behar dugu erabili?

Galdera zerrenda luzeago egin daiteke eta denoi erantzutea ia ezinezkoa litzaiguke, eta ez genituzke dudak eta zalantzak areagotuko baizik, hain baita irristakor literatur kritikaren saila.

Dena den, eman ditugun zifren interpretazio gisa balio diezagukete azken urtetako literatur emaitza hoberentsuen ezagutzen duen Xabier Mendiguren Elizegiren ondorengo hitzok, bera baita, *Elkar* argitaletxeko rewriting-a, edo idazlearekiko harremanez arduratzen dena eta hauen orijinalei baia edo ezetza eman izan diena, hauetarik herenak edo soilik gainditu zuelarik azterketa:

> Generoetan, saiakera desagertu egin da ia-ia, eta egiten dena oso ezberdina da, neurri handi batean. Eduardo Gil Bera edo Patziku Perurenaren azterbideek, esaterako, ez dute zerikusi

> apurrik marxismoari buruzko eztabaidekin. Antzerkia hondoratu egin da, talde amateurren gainbeherarekin batera. Poesiak eutsi egin dio, eta goiti egin duena narratiba da eta honen barruan ipuingintzak egin du nabarmen gora. Okertzeko beldur handirik gabe esan daiteke joan den hamarkadako literaturaren baitan ipuingintzak izan duela berritze eta handitze ikusgarriena, eta haren eskutik etorri zaizkigula emaitza biribilenak. Kontakizun laburraren gorakada honetan, generoaren berezko edertasunaz gain izan da kanpoko eragilerik ere; literatur aldizkariek neurri hori eskatzen dute, eta perretxikoen moduan ugaldutako ipuin-sariketek ere hori bera bultzatzen dute. (*Jakin*, 76, 1993:98)

Gai eta iritzi mordoxka ukitzen dituenak Mendigurenek jenero ezberdinez, baina orokorki eta hitz gutxiagotan honela labur ditzakegunak:

a) Saioan joera ezberdinak direla.

b) Antzerkia desagertzeko zorian dagoela.

c) Poesiak ohikoari eutsi egin diola, eta

d) Narratibak nabarmenki gora egin duela.

Berritze, ugaritze eta emaitza borobilenak kontagintzan eman direla, noski, eta perretxikoen moduan ugaldu direla ipuin-sariketak. Baina begibistakoa dena orokorki, zertxobait jarraitu dituenarentzat euskal literaturaren pausuak merezi du zehaztasun eta xehetasun zenbait.

Lehen-lehenik, garbi dagoena da, Mendigurenek azpimarratzen duen bezala, aurreraxeago artikulu berean, denetik zerbait edo orotarik bada euskal alorrean. Ortodoxiatik heterodoxiara, monolitismotik eklektizismora, itxaropenatik eszeptizismora eta progresismotik kontserbadurismo punturako jaidurak ere ematen ari direla.

Zergatik den guzti hori? Bada, aski argi eta garbi dago gizartearen bilakaeraren izpilu gertatzen dela ere literatura, eta fenomeno horiek gure artean eman direla eta ematen ari direla neurri batean edo bestean. Bestalde, belaunaldi ezberdinen elkar bizitzak, edo hobe esateko, bizi eta literaturaren gaineko hausnarketa ezberdinek ez zezaketen besterik sor. Baina nola konpara daitezke1920. urte inguruan sortu idazleen emaitzak eta Franko hil ondoren jaiotakoenenak?

Bestalde, iritzi oso ezberdinak eman dira mugatu nahi izan denean noiz eta zein urtetan ematen den euskal literaturan iparrorratzaren aldaketa, eta noiz hasten diren "berrikuntzak". Jose Azurmendik, adibidez, 1956an eta *Jakin*-en sorreran ipintzen du literatura "moderno"aren hasiera. Ibon Sarasolak 1964an jarriko du Gabriel Arestiren *Harri eta Herri*-ren argitaratze urtean, hain zuzen. Txuma Lasagabasterrek, euskal narratibaren berritzea Txillardegi eta Saizarbitoriarengan ipiniko ditu, alegia, topiko bilakatu bide den ondoko honetan, Txilarrdegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*-ri (1957) zor zaiola gaien "modernizatzea" edo existentzialismoaren sarrera, eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*-ari (1969) teknika berrien gureganatzea. Inor gutxik ukatuko du, ordea, gaiei dagokionez 50ean Jon Mirandek idatzitako poemek gauza guztiz berria adierazten zutela euskal literaturaren hesparruan, eta 1953ean Andima Ibiñagabeitiarekin izan zuen elkarrizketan (*Gernika*, nº 23, 98-102) hala nola Mirandek urte berean plazaratu "Liburu Lizunetaz" artikuluan *(Euzko Deya*, 1953, nº 355) ageri denez, ordurarte euskaraz inoiz urratugabeko lur eta gaiak astintzen dituztela, zalantzan ipiniz eta kritikatuz *euskaldun-fededun* ohiko bikotea. Eta Jon Kortazarrek bere aldetik honakoa diosku: *... me parece más conveniente una división de las tendencias, más que de las cronologías, porque además los autores vivos siguen produciendo por lo que las etapas pueden considerarse sin cerrar* (*Literatura Vasca. Siglo XX*, 1995:111).

Belaunaldika, joeraka, eskolaka, edota jeneroka literatur emaitza banatzea ez da, azken finean, argitasunaren eta ulergarritasunaren izenean liburu multzoa sailkatzeko erabiltzen den metodoa baizik, jeneroka aztertzearenak, antza denez, tradizioa luzeena duelarik. Baina, garbi dago ere, badirela idazle batzuk zail direnak sailkatzen korronte batean bakarrik, eta belaunaldi batekoak izanik, hots, urte epe baten barnean jaioak izan arren, ez dagozkiela belaunaldi horren ezagugarririk nagusienak, eta bere nortasun berezien eta bilakaeraren ondorioz joera ezberdinetako partaidetzat jo ditzakegunak. Halaber, egun espezialitatea hain modan egon arren, jenero ezberdinak landu dituztenez, ez direla soilik kontsideratzen ahal, edo poeta, edo eleberrigile, edo antzerkigile huts, baizik eta idazle edo letragizon hesparru zabal batean beren lumak saiatu baitituzte.

Mugarriak aurkitze lan horretan benetan adierazgarria Joseba Gabilondok egin saio luzexta batean "Kanonaren sorrera egungo literaturan. Etiopia-z" (*Egan*, 1993-2, 33-65), Atxagaren kanonizazioaz (ez aitasaindutzeaz) mintzo zaigu, Bernardoren kanonizatzeaz eta Sarrionaindiaren marginalizatzeaz (?) barra barra, eta *Pott* taldeko kume zintzo bezala, ene uste apalez beharrezko distantziarik hartu gabe, honen laudoriozko azterketa egiten du, honakoxea baitiosku:

> Talde militante honek organo ofizial horren (*Pot*t) bidez literatur doktrina eraiki zuen, zenbait literatur korronte eta autore (modernismo klasiko eta berantiarreko zenbait autore, hala nola T.S. Elliot, Borges, Kafka...) aldarrikatuz, beste batzu errefusatuz (errealismoa, literatura esistentziala eta *nouveau roman*-aren antzerako literatura esperimentalak, hain zuzen, *Ustela* taldeak gogokoago zituen aukerak), euskal kulturaren eta literaturaren kritika zorrotz eta oldarkoi bat eginez, bertatik zenbait literatur joera eta autore erreskatatuz.

Geroxeago azpimarratzen digu ere abangoardia honen emaitzak garbi eta argi ageri direla *"Pottek literatura idazteko joera eta estilo bat sortarazi zuen euskal literaturan, hain zuzen, egun nagusi dena"*. Eta azkenez, *Etiopia-ren arrakasta hein batean kanpotik zetorren modernitate poetikoaren ulergaiztasun erakargarri horretan etzan zen* (sic), dio.

Pott (+1980) errebistaren sei aleak baino lehenago *Euzko Gogoa*-ren (1950-59) urratsak, hala nola *Igela, euskaldun heterodoxoen errebist*arenak (1962-63) besteen artean maizegi ahanzten dira. Joxe Azurmendi berak berak, adibidez, *Jakin*-en (1967:24-41) "Notak gaurko alemaniar lirikaz. Oharrak euskal poesiaz" artikuluan Eliot, Celan, Günter Grass, Oskar Loerke, Sedar Senghor-ez mintzo zitzaigun, eta estilo berriaz, testuen logika hausturaz, hitzen eraikitzeaz, metafora berriez, bertso luzearen psalmodiaz eta berso askearen zailtasunaz. *Olerti*-n Joxe Azurmendi berak aurkeztu zigun 1968an *Manifestu atzeratua,* zein tamalez ez den agertzen *Hitz Berdeak* (1971) poema liburuan, baina bertan aurki daitezke "Poema beltzaren arbola", edota "Antipoesia", ea.

Bestalde Kortazarrek aipatu liburuan, 80. hamarteko poesiaz, "Moviemientos (sic) poéticos en los años 80. Poesía de la experiencia" eta narratibaz mintzo zaigularik egiten dizkigun jaidura nagusiak aski ote? Adibidez, poesiarako (*poesía de la experiencia, poesía de la rebeldía, poesía simbolista y tradicional*) eta azken narratibarako (*el ruralismo negro, el realismo simbólico, la novela descarnada, la literatura urbana*) delako sailek ez dut uste batzuetan klitxe errazegi baino direnik. Dena den, Jon Juaristik bere *Literatura Vasca*-n (1987) zioena baino informazio gehiago ematen digu azken lanez, honakoa baitzioen bilbotarrak: *De los más jóvenes, apenas puede decirse nada por el momento*.

Literatur arloan, egia esan, kritika ez da izan azken urteotan, kenduta Txuma Lasagabasterrek edo Mari Jose Olaziregik edo Joseba Gabilondok Saizarbitoriaz edota Mitxelenaren omenaldirako burutu liburuan (1991), Atxagaz egin azterketa berezi batzuetarik at edota Iñaki Aldekoak bildu artikuluekin ondu liburutik kanpo (*Zirkuluaren hutsmina.*

Jatorrizko erromantizismotik euskal poesia modernora, Alberdania 1993), edota Gerardo Markuletak eta Juan Luis Zabalak egunorokoetan idatzitako kronikez aparte, zehaztasunez eta adiskidetasuna alde batera utziz landu den jeneroa, eta honek, noski, ikuspegi saihestuak sor ditzake eta sortzen dituela, ezaguna da. Sarien mundua aski hurbildik azken urteotan jarraitu dugunok ere garbi ikusten dugu, maiz, epai-mahaietan irizpide kontrajarriak daudela, eta gehienetan adostasun batera iritsi arren, askotan ez dela hori batere erraza.

Beste irizpide bat esan dugun bezala itzulpenena dateke. Esate baterako, euskal liburuen erdarazko itzulpenen munduari begirada emanez, Zabalak osatu beste honako koadroa genuke (*Egunkaria* 1995-XI-26). Datuon arabera, 27 egile, 57 euskarazko lan eta 130 erdarazko itzulpenen ditugu, baina guzti horien artetik, "garrantzitsuen" diren hamahiru hauexek osatua eratu dugu:

IDAZLEA	OBRA ITZULIAK	HIZKUNTZA
Bernardo Atxaga	10 (*Obabakoak*...)	17 (ingelesa, frantsesa...)
Mariasun Landa	12 (*Txan fantasma* ...)	12 (ingelesa, katalana...)
Gabriel Aresti	5 (*Maldan behera*...)	1 (gaztelania)
Joseba Sarrionaindia	2 (*Narrazioak*...)	3 (katalana, gaztelania...)
Karlos Santesteban	2 (*Jostailuen altxamendua*..)	3 (gaztelania, gailegoa...)
Arantxa Urretabizkaia	2 (*Zergatik panpox*...)	2 (katalana, gaztelania)
Jose Luis Alvarez "Txillardegi"	2 (*Leturiaren egunkari ezkutua*...)	2 (ingelesa, gaztelania)
Jon Mirande	2 (*Haur besoetakoa*...)	1 (gaztelania)
Xabier Mendiguren Elizegi	2 (*Estitxuk pirata izan nahi du*...)	1 (katalana)
Andu Lertxundi	2 (*Tristeak kontsolatzeko makina*...)	1 (gaztelania)
Joxemari Iturralde	2 (*Londresen nago asperturik*...)	2 (katalana, finlandesa)
Ramon Saizarbitoria	1 (*100 metro*)	3 (ingelesa, gaztelania...)
Jose Austin Arrieta	1 (*Abuztuko 15eko bazkalondoa*)	2 (katalana, gaztelania)

Hit-parade-en kontrakoa izanik ere, datuok adierazgarriak ditugu esaten baitigute nabarmenki bi idazle ditugula batipat ezagunak mundu zabalean: lehen-lehenik, Atxaga, eta ondoren, haur-literaturaren eremuan: Mariasun Landa. Baina falta dira ere, adibidez, beste zenbaiten artean, Euskadiko Saria irabazi duten bi egile, bat eleberrigilea eta bestea, poeta: Juan Mari Irigoien (1989) eta Juan Mari Lekuona (1990).

Halaber, bi ditugu horien artetik jadanik hilak direnak, eta biak aintzindari eta "iraultzaile" izan zirenak beren garaian: Aresti eta Mirande. Baina ez dago esan beharrik, idazle hilak badirela urtero argitaratzen dutenak baino biziago dirautenak beren obretan eta mila aldiz erakargarriago ohi direnak. Datu eta errealitate honen zergatia ere anitza denez, utz dezagun irakurlea pentsatzen izan ditzakeen zio ezberdinetan, baina azpimarratuz, berezko literatur balioez at, egileek kanpo-harremanetarako duten ahalmen eta balio berezia daitekeela, dudarik gabe, arrazoietarik bat.

Bestea, ez erakundeek, ez argitaletxeek ez dituztela aurriritzi aitortu ezin batzuen ondorioz, behar bezala promozionatu euskal literatur lanen itzulpenak, ezta idazleak berak saiatu eta ahalegindu behar adina, pentsatuz maiz, gaztelaniaz emanez gero beren mezua, noski, irakurle askoz gehiagorengana iritsi arren izan dezaketen euskal irakurle hori ere gal dezaketela. Nabarmena da euskaldun askok Atxaga gaztelaniaz bakarrik ezagutzen dutela.

Bestalde, ezaguna da hemendik kanpo euskal literaturari buruzko interes handirik ez dagoela (katalanak baino saltzaile eskasagoak garela argi dago), edota zenbait kritikarik eman duten ikuspegia ezkorregia izan dela interesatu daitezen kanpotarrak, eta honen ondorioz bertako idazle erdaldunek egin dizkieten kritikak euskal literatur lanen laguntzei, beren obrak euskaratzeko oztoporik ez ezarri arren.

Hona, hain zuzen, zioena duela gutxi Atxagak itzulpenez (*Argia*, 1995eko martxoaren 19an):

> Euskal idazle gutxi dira beste hizkuntza batera itzulita daudenak, eta daudenak ere, salbuespenak salbuespen, argitaletxe eta modu marjinaletan, eta hortik abiatuta oso zaila da Euskal Herritik kanpo agerpena izatea. Orain badago Bilbon agentzia literarioa sortzeko asmoa, eta bene-benetan iruditzen zait horren premia dagoela. Hori egiten ez den bitartean, hemengo kultura eta literatura herren ibiliko dira. Gaur egun literaturak nazioartekotasun bat du, eta euskal literatura horri aurre egin beharrean dago.

Gutxi eta marjinalak izatea, hori da antza, euskal idazlearen patua, denek munduan barrena ezagutuak eta maitatuak izatea desiratu arren. Gauza bitxirik ere ez da falta. Adibidez, Juan Luis Zabalak André Gabastou, Atxagaren frantses itzultzaileari esaten zionean harrigarria zela Frantzian ezezagunagoa izatea Euskal Herriko literatura Galiziakoa baino, honela erantzuten zion itzultzaileaz at agente, adiskide eta arrakastaren eragile denak (*Egunkaria*, 1995-eko azaroaren 26an):

> Andeetako mundua, esaterako, ezagunago da frantziarrentzat Euskal Herria baino. Nik neuk, gai hau ere landu baitut, egiaztatu dut Frantzian nazioartean ospetsu diren benetako adituak daudela Andeetako mundu horretan. Euskal Herria, berriz, zati bat Frantzian izanagatik ere, ezezaguna da. Hori, niretzat, propagandak Euskal Herriaz zabaldu dituen klitxeen ondorioa da. [...] Guztien unibertsitate prestakuntza oso klasikoa denez, ia inori ez zaio interesatzen euskal literatura.

Argiak, bere 1983-1993ko hamartekarian, bere disko eta liburu aipagarrien zerrenda ematen digu ez datorrena bat eman dugun itzulpenenarekin (B.Atxaga, J.A. Arrieta, M.J. Iturralde, A. Landa, A. Lertxundi eta J. Sarrionandiaren errepika salbuespen), bertan hogeitabost izen aurkitzen dugularik bestainbeste obrekin gutxienez, eta hona dakarguna alfabetoaren arabera eta mostra gisara:

Anselmi, Luigi, *Zoo ilogikoa,* (Pamiela, 1985)
Antza, Mikel, *Odolaren usaina,* (Susa, 1987)
Aranbarri, Iñigo, *Dordokak eta Elurrak,* (Susa, 1989)
Arano, Jon, *Malezia sorta,* (Susa, 1991)
Aristi, Pako: *Kcappo (Tempo di tremolo),* (Elkar, 1985)
Azurmendi, Joxe, *Espainolak eta Euskaldunak,* (Elkar, 1992)
Berrizbeitia, Luis, *Eremu karroindunak,* (Elkar, 1992)
Borda, Itxaro, *Just Love,* (Maiatz, 1988)
Egiguren, Rafa, *Ilargia putzuan ageri,* (Erein, 1990)
Epalza, Aingeru, *Garretatik erauzitakoak,* (Elkar, 1989)
Erdozaintzi-Etxart, N., *Herri honen erraietan,* (Maiatz, 1984)
Etxamendi, Eñaut*, Aurora,* (Maiatz, 1985)
Gil Bera, Eduardo, *Fisikaz honatago,* (Pamiela, 1990)
Hernandez Abaitua, Mikel, *Ispiluak,* (Hordago, 1985)
Irigoien, Juan Mari, *Babilonia,* (Elkar, 1989)
Izagirre, Koldo, *Balizko erroten erresuma,* (Susa, 1989)
Jimenez, Edorta, *Atoiuntzia,* (Susa, 1990)

Juaristi, Felipe, *Denbora nostalgia,* (Baroja, 1985)
Kerejeta, Mari Jose, *Ezezagun baten koadernoa,* (Gipuzkoako Kutxa, 1988)
Montoia, Xabier, *Anfetamiña,* (Susa, 1983)
Mujika, Iñazio, *Azukrea belatzetan,* (Erein, 1987)
Otamendi, Jose Luis, *Poza eta gero,* (Susa, 1990)
Perurena, Patziku, *Harripiletan ezkutatzen zeneko apo tipiaren burutazioak,* (Erein, 1990)
Ugalde, Martin, *Bihotza golkoan,* (Erein, 1990)
Zabala, Juan Luis, *Zigarrokin ziztrin baten azken keak,* (Elkar, 1985)...

Argi eta garbi dago zerrenda egin duenak edo burutu dutenek *Susa* edota *Elkar* argitaletxeen ingurukoak direla, beraiek irteten direnez gero hoberenak puntuazioan, honela gelditzen delarik norgehiagoka:

Susak	7 idazle
Elkarrek	6 ”
Ereinek	4 ”
Maiatzek	3 ”
Pamielak	2 ”
Hordagok	1 ”
Barojak	1 ”
GKk	1 ”

Argitaletxe hauetatik gehienak Gipuzkoan kokaturik daude, Donostian espreski *Susa-Elkar* eta *Erein, Maiatz* Baionan eta *Pamiela* Iruñean, *Hordago* eta *Baroja* desagerturik, eta Gipuzkoako Kutxaren zabalkundeak ezagunak dira ez direlako ezagutzen. Hutsune nabarmenak ageri dira zerrendan:

a) Bizkaiari buruz (Dena den, Sarrik, Edortak eta Andolinek Bizkaitik kanpo argitaratzen dute);

b) Izen aski ezagun batzuenena (Agian 1993-2003 hamarteko ale berezia moldatzerakoan koponduko dena, eta

c) Antzerkiarena, alegia, jenero ahantziarena (Komentzi nazate ez dela zerrendako literatur testu hobeagorik antzertian).

Jakina da gainera, hogeita hamar pasatxo diren zerrenda horretan zaharrena Martin Ugalde dela (1921) oraindik jotake idazten dabilena, eta Manex Erdozaintzi (1934-84) hila dela. Ez dira ageri, besteak beste, Jean Diharce “Iratzeder”, Jon Etxaide, Bitoriano Gandiaga, Jean Haritschelhar, Juan Mari Lekuona, Txomin Peillen, eta gerraurrean jaiotako hainbat eta hainbat, hizkuntza eta idazkeran eredugarri gerta dakizkiigukenak. Halaber, gerraondokoan Aurelia Arkotxa, Joxan Artze, Joxerra Garzia, Juan Garzia, Juan Krutz Igerabide, Tere Irastorza, Amaia Iturbide, Daniel Landart, Mikel Lasa, Xabier Lete, Iñaki Zabaleta, Pello Zabaleta, etabar luze bat, besteak beste, kanpoan gelditu direlarik badago zer pentsaturik zerrenda horietaz. Alegia, eskola bakoitzak, argitaletxe bakoitzak, errebista bakoitzak, edo nola-halako taldetxo bakoitzak liburuen feria eta merkatu horretan bere ekipokoak sartu nahiean dabilela, literatur “objetibotasun”aren, horrelakorik baldin bada nonbait, gainetik eta azpitik.

Sarien balio erlatiboa ere ezaguna dugu, zeren batetik bestera arrastaka ibili ondoren egundalako arrakasta izandakoak ere baditugun. Hemerotekara jotzea besterik ez dago jakiteko zer nolako kexuak bota behar izan zituen saiogintzaren saiheste eta baztertzearen kon-

tra Jose Azurmendik, espainolez eta euskaldunez burutu bere lan ez-akademikoa saritua eta argitaratu izan zedino.

Bestetik, mendigurenek seinalatzen zuen progresismotik kontserbadurismorako joeran areagotuz Koldo Izagirrek honakoa zioskun (*Argia*, 1995eko ekainaren 11an):

> Poesian esate baterako, eta prosan ere bai, botere espresiboa galdu egin da asko, kalitate literarioa ikaragarri hobetu bada ere. Gauza perfekto ezdeusak gero eta gehiago ikusten ditut. Alegia, kafea egiteko balio ez duten kafe-makinak. Balizko errotak poesia eman behar du, bestela ez litzateke balizkoa izango. Balizkoa izan behar du baina errota ere bai. Zeozer espresatu behar du.

Dena den azter dezagun zerrenda guzti horien artean beti agertzen den bat, alegia, Joseba Sarrionaindiaren *Ni ez naiz hemengoa.* Honen gaztelaniazko bertsioa prestatu zuen *Hiru* argitaletxeak eta Eva Forest-ek hitzaurrea eskatu zidan. Nik idatzi, baina ez zuen argitaratu nahi izan, beste gauzen artean honakoa zioen gutunaz erantzuten zidalarik (1994-XII-1), "Tú prólogo es muy bueno, muy documentado, un trabajo notorio, que no iba a pasar inadvertido" (sic). Beraz, ondorengo lerro hauen bitartez frogatzen ahal da, harrigarria, gaztelaniaz baino askeago euskaraz esan daitezkeela gauzak, eta zenbait talde pribatuk ez bezala euskal erakunde batek ez duela zentsurarik.

Sarri, halaxe deitu izan diogu adiskide kutuntzat jo dugunok, Igorretan jaioa da (1958) eta idazteko afizio goiztiar batek ukitu zuen. Jada hamabost urtekin ipuinak eta filosofi saio laburretan ahalegintzen bide zen, baina gaztelaniazko hasiera hauek alde batera utzi eta politika kontzientziarekin batera euskara lantzen hasi zen eta euskal idazleak irakurtzen. Bere lehen urratsak zineaz eta literaturaz idatzitako izkribuak dira *Zeruko Argia*-n eta *Anaitasuna*-n.

Euskal Filologia amaitu eta Bergarako UNEDen Ikastetxe Elkartuan Fonetika klaseak ematen hasten da. Udako Euskal Unibertsitatean ere ematen ditu klaseak Iruñeako Larraona Kolejioan, eta hementxe ezagutu nuen. Oraindik oroitzen ditut Hotel Europan, mahai baten inguruan Jon Casenaverekin batera literaturaz egin mintzaldi aspertua, eta nola Josebak bere irakurketen zabal eta sakona modurik apalenean agertzen zigun.

Jakina da ere, nola Franco hil eta hurrengo urteetan Bilbaoko parte zaharrean idazle gazte multzo bat biltzen zen tartean Bernardo Atxaga, Jon Juaristi, Ruper Ordorika, Jimu Iturralde, Manu Erzilla eta Joseba, eta nola elkarrizketan haien ondorioz erditu zen *Pott* aldizkaria, non lehen editorialean argi eta garbi uzten zuten, ez zeudela inoren zerbitzuan, ez eta inongo politikaren morrontzapean, beren buruak eta ideiak argitzeko baizik.

Donostian gara beretsuan beste talde bat biltzen da, bertako partaide direlarik: Ramon Saizarbitoria, Koldo Izagirre, Andu Lertxundi, Josetxo Lizartza, Ramon Etxezarreta, etabar, *Oh Euzkadi,* aldizkaria plazaratuko dutelarik, hemen Sarrik ere parte hartu zuelarik. Honen 6.

alean (1980), euskal literaturan ematen ari zen hizkera berritzeaz mintzo delarik "100 urte Apollinaire eta hizkuntza berrizte literarioa" deitu artikuluan Jose Azurmendik hauxe zioen, alegia, literatur abangoardiaren arazorik larrienetakoa, euskal idazlea beti bere ghetoan bizi izanarena dela, eta abangoardiko musikagileak euskaraz entzun dituen arren, Oteizak, Txillidak eta Ibarrolak, adibidez, beti gaztelaniaz mintzatu izan zaizkiola, baina azken boladan haize fresko eta lotsagabe bat sartu berria dela gure literaturan.

80an ezagutuko da Sarri, urte horretan hiru sari irabazten baititu: R.M. Azkue poesian *Izuen godelekuetan barrena* (Elkar, 1981) poema bildumarekin, Ignacio Aldecoa ipuingintzan *Maggie, indazu kamamila* (Xaguxarra, 1980), eta *Enperadore eroa*-rekin (Punto y Hora de Euskal Herria, 1980) Bilbaoko Hiria ipuingintzan ere.

Carabanchel-en, 1981eko otsailaren 15ean amaitzen du bere poema liburuaren lehen edizioaren hitzaurrea, eta benetan obra arrakastatsua izan zen. Bitakora kaier hau, bere hitzak erabiliz, zazpi lurraldetan barrena hedatzen da: Sorterria, Parise, Grezia, Lisboa, Irlanda, Praha, eta Deserria. Eta bidaia puntu bakoitzean maiteen dituen idazleei omenaldia eskaintzen die: Kavafisi, Kafkari, Pessoari... Hain dago gainera literatur aipamenez josia, Kortazarrek honela definituko duela, metaliteraturaren korronteari jarraikitzen dion poeta (*Reduccions*, nº 22, Barcelona, 1984, 100). Jaidura honek, noski, *Pott* taldearen joerekin erabat lotzen du, *literatura oro literaturaren literatura da* baitzioskuten hauek.

Baina kartzelako egonaldiak, edo hobeto esan sufrikarioak, guztiz urratu eta ukituko du bere izpiritua. Halere, ez da izanen fruiturik gabeko iraganaldia, sufritu injustizien kontra parte hartzeaz gain, idazkuntzan babestuko baita, hau izan baitzen beretzat, defentsa bakarra bizitzaren ofentsen kontra, Paveseren hitzak erabiliz errepikatzea laket zitzaionez, *Marinel Zaharrak* (Elkar, 1987) liburuan bildu *Gartzelako Poemak* osatzen dituzten 35 poemek beste urrats baten adierazgarri baitira. Alegia, metaliteraturatik salaketa eta konpromisuzko poesia politika baterako pausua. Halaber, bere astitxo "aske"ez baliatuko da Fernando Pessoaren *O Marinheiro* drama itzultzeko (Susa, 1985), *Narrazioak* (Elkar, 1983) osatzen duten ipuinak idazteko, hala nola izenik gabe, –baina aitzin-solasean nere ustez bere luma zorrotza nabarmentzen da–, eta talde moduan Puerto de Santa Maria-tik bidali *Intxaur azal baten barruan eta Eguberri Amarauna* (1983) burutzeko.

Zehatz eta irudi bortitzez adierazten zuen nolako harrera izan zuen *Narrazioak* liburuak, eleberrigile eta liburu komentariogile den Aingeru Epalzak (*Hegats* 8, 1994), alegia, masaileko baten gisara, zeren ipuin haietxetan ikasi baitzuen beste askok legez, *ibiltzen ez diren bideak direla ibiltzeko ederrenak.* Obra honek, esan bezala, arrakasta handia ukan zuen bere bederatzi edizioek adierazten duten bezala, hala nola katalanerazko itzulpenak (*Narrations*, Barcelona, Portic, 1986), hala nola Bego Montoriok gaztelaniara egindakoak. Bertako ipuinen berrirakurketak beti asetzen du irakurlea, estiloaren dotoretasunarekin batera ezin modu hobeagoan loturik baitoaz ahots klasikoak eta euskararenak.

Obra hauek, bada, presondegiko ingurune estua haustea lortzen zuten eta Sarrik bere lumaren fruituak barreiatzen joan bide da, adibidez, Baionako *Maiatz* eta Iruñako *Pamiela* aldizkarietan. Horrela, *Maiatz*-en 5. aldizkarian (1984) Miquel Mari i Pol, Henri Michaux, Jacques Prévert, William Wordsworth eta Walter Delamare-ren poemak aurkezten ziren Sarrik itzuliak, Mayi Peloten gutun batekin. Eta Iruñako errebistan HAGOLA titulupean bukaera hauxe duen poema bat aurkezten zuen:

> Orhin habia arranoek eta handik
> nagusi ibarretan. Arren esaiezu
> datozela landetara gure xerka
> libro itzuli nahi dugu eta herrira.

Eta Martuteneko kartzelatik ihesi egitea lortu ondoren, nora arranoak bafleen irudiz mozorroturik iritsi ziren, Sarrik *Ni ez naiz hemengoa* (Pamiela, 1985) plazaratuko digu. Egilearen hitzetan "zita-etxea" dena, eta dietarioaren era lan bidea. Jose Maria Larrea, lehen aitzin-solasgileak dioen bezala, hamaika zatitxoz eginiko multzoa da liburua: *Pentsatu ahal duzu, gartzelan, aisia, astia eta kuraia ezinhobeak lagundurik, munduaz halako puzzle gaitza egiten duela, prentsak, irratiak eta bisitek eman berriez araberatua.* Ehun eta bi zatiduna, hain justu, urtarrilak 17an hasi eta ia egunero zertxobait idatziz, uztailaren 22an burutua.

Beraz, garbi dago, lan baldintzak kontutan izanik, berezko duela zatitasuna, hots, hamaika zati ezberdinez osatu saioa dela, eta bertan estilo dohain apartez urjentziazko teoria eraikitzen dihoala. Non itzulpena birsortze era, sortze modu berrian bilakatzen den, eta non itzulpena hartzen den Julián Rios-ek *Quimera* aldizkarian zioen bezala (nº 9-10, 1981:30), *Crítica, lectura crítica en profundidad, recreación de los placeres de una escritura irreductiblemente otra,* balitz bezala. Hau da, itzulpen horien bitartez Sarri kultur ezberdinen enbajadoreen aurkezle agertzen zaigu, "intraductor"e gertatzen, eta modurik atseginean literatura unibertsalaren partaide egiten, geroago berriz *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (1985) eta *Hezurrezko xirulak* (1991) tituluotan izango zaigun eran.

Lehen testuarekin batera ematen bere gidariaren aitorra: Roland Barthes. Eta esaten ez digun arren Ahurtin bizi izan zen literatur kritikari eta semiologoaren zein liburu duen eredu, ene ustez argi eta garbi dago *Mythologies* (Du Seuil, 1957) dela. Hemen Barthesek 1954 eta 1956 bitartean idatzitako berrogeitahamarrenbat artikulu biltzen ditu, frantses egunorokotasunaren mitoak agerian utziz, eta oinarri bezala oso gai multzo ezberdina erabiliz: prentsa artikulua, errebista fotografia, filmea, strip-tease-a, catch borroka, Frantziako Tourra... Baina gai eta gertaera guzti horien gainean ematen den ikuspegian, lan bide barthesianoaren erabilera nabarmentzen da, desmitifikatze funtzioa betez, eta orotaz egiten den ideologi irakurketa gehiegizkoa salatuz.

Ez dira Sarriren testuak gaur egun hain modan dauden kazeta zutabegileenak bezala, hauek lege hertsi eta berezi batzuei erantzuten baitiete, aldiz, barne erritmu eta ahots askoz ere askeago baten adierazgarri. Eta bere soaldiak berdin uki dezake hala testurik ñimiñoena nola bibliografi erreseina, hala izan daiteke liburu komentarioa nola hizkuntzari buruzko gogoeta, liburua, beraz, leku eta ingurune gero eta idekiago eta zabalagoan bilakatuz.

Sarri berak badu literatur jeneroez ikuste modu propioa, honelaxekoa, hain zuzen (*Han izanik hona naiz,* Elkar, 1992:50):

Sei jenero literario dago:
Poesia, nobela, ipuina, teatroa, entsegua eta lardaskeria.
Argitaratzen diren obra gehienak azken jenero honetakoak dira.

Ez da, noski, *lardaskeria* jenerokoa Sarrirena, saiogintzan izan den tradiziorik hoberentsuenaren partaide baita. Alegia, Frantzian (Montaigne, Montesquieu, Barthes...), eta Espainian (Gracián, Unamuno, Machado...) ezagunenetakoak badira, Euskal Herrian ere ez dira falta goi-goi mailakorik (Jean Etxepare biak, Salbatore Mitxelena, Koldo Mitxelena, ...) beste askoren artean.

Bere testuen "brevitas" delakoaz, alegia, laburtasunaz hona zer dioen beraxek *Ez gara gure baitakoak* (Pamiela, 1989) liburuari egin hitzaurrean:

> Gure kaier gorrietako miniaturak literatura diren edo ez jakiteko, erretorika zaharra errepasatzean aurkitzen dugu antigualean idazterakoan *amplificatio* eta *brevitas* artean

aukeratzen zela. Bigarren bide edo estarta honetatik datoz ondorengo asmakizunak, datzibaoak, haur ipuinen per-bertsioak, moebius zintak, paradoxak, penny dreadfuls, ametsak, laburmetraiak, gogoeta solteak eta beste botoi galduak.

Zergatik tipiak? Bilatzea maite duenari tipitasunak bilaketaren atsegina ugaltzen diolako.

Ediren hauek ez dira, ordea, batere ingurune atseginean aurkitzen *Ni ez naiz hemengoa* liburuan, hau kartzela baita. Honek esplika dezake obraren zenbait hutsune eta akats, zein kartzelatik irtendakoan gainditu zitezkeen, edota testu orijinalekiko errespeturik eza, ezen aipamen ez zehatzek interpretazio ez zuzenak eragin baititzakete.

Leizarragaren testua (Luc., XI, 27), adibidez, *Diccionario Retana de autoridades del euskera*...delakotik egiten da, obra orijinaletik egin beharrean.

Ez dut uste ere egilearekiko errespetu haundiegirik adierazten duenik, Xabier Kintanak burutu Kafkaren *Itxura-aldaketa*-tik hiru testu kopiatzea eta ez aipatzeak *(Lur,* 1970, 49, 50, 64).

Halaber, *Macbeth,*-en V. ekitaldiko V. agerraldia aipatzen denean ez da zuzen itzultzen, eta oker hau saihets zitekeen Manuel Conejerok, Shakespeare Institutukoak egin edizioa erabili izan balitz. Eta antzerki hori hautatuz gero, Toribio Alzagak Donostian lehen aldiz Donostian 1926an euskal antzertiaren historian egin taularatze eta moldatzearen aipamentxoa ez zegokeen batere gaizki (Ikus, *Jostirudiak- Irritza*. Euskal Klasikoak, X. Mendigurenen edizioa, 1990).

Ni pintorea banintz izeneko artikulutxoan dioena ere ez luke esango inolaz ere, ene ustez, baldin eta Patziku Perurenak burutu lan gotorra eta benetan interesgarria, *Koloreak euskal usarioan*, (Erein, 1992) irakurtzeko astirik hartu izan balu, edizio berria eginaitzin.

Ildo beretik *Soneto bat hizkuntza bitan* Larramendiz ematen den iritzia, guztiz edo bederen neurri handi batean alda zezakeen haren jaiotzaren hirugarren mendehurrena zela eta Joseba Lakarra eta bestek plazaratu liburua (Andoain, 1992) eta bertako artikulu eta lan sakon eta benetan interesgarriak irakurri izan balira. Zeren garbi dagoen askotan euskal literatuari egozten zaizkion akatsek eta ondoriozko mespretxuek baduten zer ikustekorik bazterlearen hutsune propioekin eta behar bezala ez ezagutzearekin autore zaharragoen idazlanak.

Ez dut uste ere Jon Mirandez egiten den erabilera *Malenkonia eta Jon Mirande* deitu lantxoan soilik ERESI hamalaukoa aipatuz, eta heroe bilakatuz, alegia, goraipatuz soilik une berezi batean idatzitako testua. Ikus, bestela, nola damu den Jon bera idatzitako zenbait lanez, *Ergelkeria hoien bekhatuak damutzen nau txit - mea maxima culpa - eta ez dut gehiago egin nahi.* (*Gutunak*, Patri Urkizuren edizioa, Susa 1995). Noski, nik maiteago ditut aktore txar eta dendariak heroe eta militarrak baino.

Poemagintzaren inguruan gogoetak izenekoan esandakoekin bat nator oinarrizko baitira, adibidez, *Konpromezu politikoa eta etikoa ez da aski, sendimenduak ere aski ez diren bezala, poesia ona egiteko; poesia txar ugari egin bait da ideia onen izenean...*Baina hitzotan dioena beragatik uste dut beste planteamendu etikoago bat eska dakiokeela, 1985eko ekainaren 15ean egiten duen guardia zibila eta GAL-en salaketa ondoren, zeinarekin bat natorren, jauzi ideologiko batez, sinismen itsuarenaren parekoaz, esaten baitu, *egun ez dago burruka harmatuaz beste aukerarik.* Oroitarazi nahi dizkiot, jada Montesquieuk aspaldi esandako hitz haiek: *Une injustice fait à un seul est une menace fait à tous.*

Alegia, pertsona bakar bati egin injustizia gizarte osoari egiten dela. Eta hain ongi ezagutuko duen Ernesto Sabatoren beste hitz haiek: *Ya no se puede dudar, despues de terribles experiencias: el fin no justifica los medios, y es trágicamente ilusorio perseguir fines nobilísimos con medios innobles* (*Apologías y rechazos*, Seix Barral, 1979:163)

Aski dela uste dut, Joseba. Bihotz-bihotzetik har itzazu nere besarkadarik beroenak, eta badakizu zuk ere ongiaski taldekidearen laudorioak baino gehiago balio dutela adiskidearen kritika zorrotzak. Laister agian benetazko aldaketak askatasunaren bidean izango direlakoan, ez adiorik!